

Michel Veunac,
Baiona Angelu Biarritze Aglomerazio Elkargoko Lehendakari
orde eta garraio publikoen sindikatu anitzako lehendakaria.

EKITEKO ARRAZOINAK

Autoaren erabilpenak « marka » guziak hausten ditu aglomerazioan eta, ondorioz, ardatz guzien saturazioari aurre egin behar zaio. Iragarritako biztanleriaren emendatzearekin, itoketaren mehatxua agertzen da. Baiona Angelu Biarritze Aglomerazio Elkargoa, Baionako aglomerazioko garraio publikoen sindikatu anitza eta Lurralde Antolaketa Eskemak ekiten dute « dena autoari » alternatibak ekartzeko, egoera alda dadin eta Elkargoko Lurralde Klima Planaren helburuei erantzuteko. Joan-etorrien iraultza hau nahitaezkoa da, garapen iraunkorraren ardura duen Elkargoko lehendakari ordea eta garraio publikoen sindikatu anitzako lehendakaria den Michel Veunac-ek azaltzen duenez.



Mugikortasunaren zenbakiak aglomerazioan esanguratsuak dira. Gaurko egunean, joan etorrien % 4a baizik ez da garraio publikoetan egiten, % 80a autoz. Menaioren motorizazio tasa, Frantziako gorenatariko bat da, 1,34 autorekin etxeka. Urtean, 6 milioi garraiolarik erabiltzen dituzte garraio publikoak gure aglomerazioan. Zenbaki hau eskasa da Donostiarekin, adibidez, konparatzen badugu, bertan 28 milioi garraiolari direnean. Autoaren gehiegizko presentzia honen arrazoina – 134 000 ibilgailu inguru – zentzugabeko hiriaren hedapena, etxebizitza eta lantokiaren arteko distantzia handiegian... datza. Beti garatzen diren mugikortasun beharrak.

MUGIKORTASUN BERRIA

Lurralde honetako lortu nahi genukeen mugikortasun berria, aukerak bilakatu diren bortzak dira : berotegi efektuko gasak murriztea. Giza loturak eta aukera berdintasuna lagunduko dituzten garraio kolektibo moldeak zaharberritzea. Beldurrik eta kalterik gabe, hiri barneetan baina herrien bihotzetan ere oinez edo txirringulaz ibiltzeko plazerraz berriz gozatzea. Hiritar eztabaida bat abian jartzea gure bizi moldeez eta eskala administratibo hertsiegia gaintzea... Mugitzeko molde berriak asmatzea energiaren murrizketa eta... haren kostua aurreikusteko.

Fitsik egiten ez bada, egoera biziki kezagarria bilakatuko da.

Autoen kopurua % 4ez emendatzen da urtean. 20 000 biztanle berri aurreikusten dira aglomerazio hedatuan hemendik 2020ra. Gauzak horrela joanez, autoen kopurua % 50ez emendatuko da hemendik hamar urtera. Zenbaki hauek zorabiarriak dira. Helburua ez da horretarako gurutzada « anti auto » batetan sartzea, baina bai agloaren bihotzetan, automobilaren nagusitasuna murrizteko alternatibak zehaztea. Honen gehiegizko presentziak espazioa... eta airea itotzen dituelako. Gero eta trombosi gehiago agertzen dira, hedatze horri eta garraio publikoen sustapen mailan hartutako berantarekin, ... lotuak. Bestalde, aglomerazioan, hiri kultura biziki murrizta da. « Hiririk gabeko hiria » ren utopia hazten da. Erran nahi baita haren abantailaz gozatzea, bortzak onartu gabe...

Beste ondorioa ekologikoa da. Alarma gorria piztera behartzen gaitu.

Egia da, Elkargoak egin karbono bilana erranbidezkoa da : BABen, urtean, 650 000 tona berotegi efektuko gas, ibilgailu motorizatuen joan etorriek eraginak dira, oro har isurtzen ditugun kutsatzaile atmosferikoek % 60. Haren Lurralde Klima Planaren baitan, agloak isurketak hemendik 2020ra, % 25az murriztearen aldeko parioa egiten du. Horren lortzeko, joan-etorrien aztarna ekologikoa biziki ezkorrengan ekin behar du.

Beraz, denborarik ez da galdu behar...

Dinamika abian jarria da. BABko Elkargoak, garraio publikoen sindikatu anitza eta SCOT / LAE gisako egitura eskudunen profesionalizazioa lagundu du. Eragileak lanean jarriak dira helburu berdina lortzeko : sare erakargarria, modernoa, biztanleriaren itxaropenei egokitu plantan jartzea.

Lehen seinale azkar bat igorria izan da, Baiona eta Angeluren artean abiatua izan den gune propioko zatiarekin.

Autoaren nagusitasuna murrizteko, alternatiba sinesgarri, eraginkor eta erakargarria plantan jartzea komeni da. 4,5 kmko gune propioko zati hau dugu gogo horren lekuko. Hiru ardatz egituratzaileen inguruan artikulatua den biharko garraio modernoa igartzen du. Joan den uztailaren 7an, zati hau plantan jarria izan denetik, l. linearen erabiltzaileen kopurua % 20ez emendatu da 2008 urteari konparatuz.

Autoaren tokia murrizteko, beste neurri batzuk beharrezkoak izanen dira.

Sarearen berritze progresiboarekin batera urrik diren nabetak, eskaeraren araberako garraioa, bidegune parkeak ere garatuko dira. Joan-etorri ezteie bai eta hiriko praktika berriei... lehenatasuna emanen zaie beti. Asmoa, automobilista bakoitzari ibilpide eroso, fidagarri ekonomiko eta ekologikoa eta haren beharrei erantzuten duena eskaintzea da. Espazioaren partekatze adimendun batetara heltzeko...

Pario hau kausitzeko, hiritarren inplikazioa beharrezkoa da.

Hiriko aldaketa horietan, deus ez da lortzen hiritarren adostasunik gabe... Bermatua den abiadura komertzial batekin molde kadentziatuan mugitzen den goi mailako zerbitzuko autobusa progresiboki agertuz, usaiak aldatuko dira, hiritarrak mugikortasun eta garapen iraunkor erronka horien inguruan mobilizatuko dira. Desafioa pisua da, baina izugarri interesgarria.

BA OTE DAKIZUE ?

MUGIKORTASUN IRAUNKORAREN ALDEKO HAUTUA

Autoa ibilpide erabili da. Eta autoen trafikoa urtero % 4ez emendatzen da 2000z gero. Deus ez bada egiten, autoen kopurua % 50ez emendatuko da hemendik hamar urtera. Guzien aparkatzeko eremua lortzeko, 50 errugbi zelai eraiki beharko litzateke, erran nahi baita urrik diren nabetak 25 urtez erabiltzea bezain bat ! Agloak alderantzizko hautua egin du : mugikortasun iraunkorraren bidean sartzea, gune propioko garraioarekin, intermodalitatearekin, joan-etorri ezteiekin...

AUTOBUSA, AUKERA ONA ATMOSFERARAKO

Gaur egungo garraio publikoetako sareak urtean 6 milioi bidaiari garraiatzen ditu. 40 pertsona garraiatzen dituen autobus batekin, 30 auto gutiago dira hirian ! Garraiatua den bidaiari bakoitzeko 40 gr CO₂ isurketa kontatuz, **240 tona** CO₂ dira. Autobusari esker lortutako ekonomia 1 420 tona CO₂ gutiagokoa da atmosferan. Gune propioko etorkizuneko mailarekin, garraiatutako bidaiarien kopurua **6 milioitik 10era** pasatuko da hemendik 2015era. Plan on bat atmosferarako !

KLIMA PLANAREN HELBURUAK BETETZEA

Pertsonen garraioa, Baiona Angelu Biarritze aglomerazioko berotegi efektuko gasen isurketaren % 60 da, 650 000 tona balioko CO₂ekin. Hauen 2/3 autoen trafikoa eragiten du eta 1/3, aireko trafikoa. Garraio publiko sarearen berregituratzea eta berritzea, Lurralde Klima Planaren helburuetatik hurbiltzeko ekintza garrantzitsuak dira bata eta bestea : erran nahi baita hemendik 2020ra berotegi efektuko gasen isurketa % 25ez murriztea.

